

Jokoa ez da errenta ezta jostaketa ere

“Partidu ona jolastu dugu”, “jolastuko al gara xakean?”, “nik ez dakit eskubaloian jolasten”.

Eta jokatu zertan egiten da?

Euskarak baditu bi modu eta bi hitz espainierako *jugar* aditzaren esanahia adierazteko: **jokatu** eta **jolastu/jostatu**. Bien arteko aldea jokoan berean dago: galdu edo irabazi egin behar bada, beti jokatu egiten da, bestela, berriz, alegia, olgatze edo ongi igarotze hutsa baldin bada, **jolasa** edo **jostaketa** da.

Beraz, goiko esaldi horiek beste era honetan esan beharko genituzke:

Partidu ona jokatu dugu

Jokatuko al dugu xakean?

Nik ez dakit eskubaloian jokatzen

Berdin-berdin gertatzen da karta-jokoekin: *musean jokatu, pokerrean jokatu* eta abar. Zer esanik ez diru jokoan: *loterian jokatu, apustueta jokatu...*

Hamaika aldiz entzuna izaten dugu pilota partidan arin antzean aritzen direnean honako esaerak:

G- Zer, ongi ari al dira jokatzen pilotariak?

E- **Jokatzen** edo, hor dabilta aurreko txoko horretan **jostaketan**

(G: galdetzailea, E: erantzulea)

Beste aldetik **jolasa** edo **jostaketa** dugu. *Piratatan, kukutan, medikutan, zezenetan, soka-saltoan* eta beste askotan, **jostatu** egiten da.

Jolastu edo **jostatu** hitzak direla eta argibide bat eman nahi genuke: gure euskalki honetan eta iparralde guzian **jostatu** esan dugu orain arte. Gaur egun, ordea,

hainbat arrazoi dela bide, **jolastu** da erabiliena umeen eta gaztetxoek mintzoan behinik behin. Inguru honetan **jolasean egin salasean ari**-ren sinonimotako erabili izan da eta oraindik ere batzuen batzuek erabiltzen dute.

**Patioan ezin da futbolean jolastu* EZ

Patioan ezin da futbolean jokatu BAI

Gogoetan sakonik ez da egin beharrik igarritzeko interferentziaren jatorriari: gaztelaniak hitz bakarra du bi esanahiak adierazteko, euskarak, ordea, bi ditu. Bistan da euskararen desberdintasunei eustea hagitik zaila dela gaztelaniaren antzeko hizkuntza indartsu baten ondoan.

Euskara batzordea